Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko urtarrilean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko urtarrilean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 992 izan da, abenduan baino 248 gehiago eta joan den urteko urtarrilean baino 159 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko urtarrilean 163 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 389 Gipuzkoan eta 440 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 44,4 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,2 Gipuzkoakoetan eta % 16,4 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 64,7 hazi dira eskaintzak (64 eskaintza gehiago). Gipuzkoan 97 eskaintza gehiago izan dira (% 33,2ko hazkundea) eta Bizkaian 87 gehiago (% 24,7ko murrizketa).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 58 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 55,2ko hazkundea, Gipuzkoan % 10,0 murriztu dira (43 eskaintza gutxiago), eta azkenik, Bizkaian % 48,7 hazi dira (144 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 21,4a zientzia teknikarien profilerako erregistratu dira (212 eskaintza); eta, % 17,7a laguyntza teknikarien profilerako (176 eskaintza). Industria, zerbitzu eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 156, 156 eta 129 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 6 eta 9 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan hazi dira eskaintzak. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, zientzia eta laguntza teknikarienak izan dira (54 eskaintza gehiago bi kasuetan, % 34,2ko eta % 44,3ko murrizketak, hurrenez hurren). Balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 100,0ko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi diren eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, zientzia profilekoak izan dira (87 eskaintza gehiago, % 69,6ko hazkundea); beste muturrean, aldiz, kualifikatu gabeko profileko eskaintzak daude, gehien murriztu direnak balore absolutuetan (44 eskaintza gutxiago, % 25,4ko murrizketa), eta lehen sektoreko profilekoak, gehien murriztu direnak balore erlatiboetan (% 76,9ko murrizketa, 20 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 19,9k kontratu mugagabea eskaini dute; % 79,4k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,7, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 197 izan dira, aurreko hilabetean baino 88 eskaintza gehiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 155 eskaintza gehiago erregistratu dira: 788 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 24,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko urtarrilean 7 izan dira, aurreko hilean baino 5 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 125 gehiago izan dira (% 173,6ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 4,9 hazi dira; 37 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 3 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko urtarrilean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurden baino gehiago (701 eskaintza, % 70,7) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 15,1ek (150 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 3,7ko pisua dute (37 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,4koa da (4 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan ezik (2 eskaintza gutxiago, % 33,3ko murrizketa). Gehien hazten diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (142 eskaintza gehiago, % 25,4ko murrizketa); balio erlatiboetan, berriz, 3 eta 5 urte arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (% 236,4ko hazkundea, 26 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan ezik (berdin mantentzen dira). Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (73 eskaintza gehiago, % 1,6ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 117,7ko hazkundea, 20 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 10,5ek zehazten du datu hori (992 eskaintzetatik 104). 104 eskaintza horietatik, 73k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 31k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 4 gutxiago izan dira abenduarekin alderatuz, hau da, % 5,2 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 13 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 72,2koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 15 gehiago izan dira (% 25,9ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 21 gehiago izan dira (% 210,ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 22 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 13 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 13 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 79,2k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 992 eskaintzetatik 206k soilik zehaztu dute.



206 eskaintza horietatik, 84k LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 71 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (43 eta 8 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (34 eskaintza gehiago, % 68,0ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 95,4ko hazkundea, 21 eskaintza gehiago).

2021eko urtarrilarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan (34 eskaintza gehiago, % 91,9ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 15,9koa izan da (158 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk merkataritza, osasun jarduerak eta jarduera administratiboak izan dira, eskaintzen % 14,5, % 9,2 eta % 8,5ko pisuarekin (144, 91 eta 84 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz, eskaintza mota gehienak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, manufaktura industriakoak izan dira (62 eskaintza gehiago, % 64,6ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, informazio eta komunikazioko eskaintzak izan dira (216,7ko hazkundea, 26 eskaintza gehiago). Beste muturrean aurkitzen dira Administrazio Publikoko eskaintzak, gehien murriztu direnak izan baitira, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan (34 eskaintza gutxiago, % 47,9ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, merkataritzakoak izan dira (51 eskaintza gehiago, %54,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, ostalaritzakoak izan dira gehien hazi direnak (% 369,2ko hazkundea, 48 eskaintza gehiago). Aldiz, gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, jarduera administratibokoak izan dira (60 eskaintza gutxiago, % 41,7ko murrizketa); balore erlatiboetan, ur horniketako eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (% 76,9ko murrizketa, 10 eskaintza gutxiago).